



Haur eta gazteak Korrika euskararen alde.- Sasoeta-Zumaburu eta Landaberri ikastetxetako haur eta gazteek atzo arratsaldean Korrika txikiko protagonistak izan ziren. Eguraldia lagun hiru ordu laurdenez gure herriko kaleetan zehar euskararen alde egin zuten lasterka. Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko txikiak izan ziren lekukoa eraman zuten lehenengoak eta urduri eman zituzten lehen pausoak. Tipi tapa, tipi tapa Kale Nagusitik Beko kalera egin eta LH-ko gazteek egin zituzten Kalbario bideko aldapako metroak. Sasoetako ikastetxe ondoan eta Andatza plazara sartu baino lehen egin zituzten bi lekuko aldaketa eta Tajamar errotondara iristean, Landaberri ikastolako gaztetxoaren txanda izan zen. Hauek Donostia etorbideetik Atsoabakar auzora egin eta bertan eskolako txikiek eman zioten ongi etorria euskararen lasterketari. Garaikoetxea eraikinetik pasa eta gero Donostia etorbidea eta Hipodromo etorbide kaletik egin zuen Korrika Txikiak. Pablo Mutiozabal kalean Landaberri BHI-ko gazteek lekukoa hartu eta lasterketak erritmoa hartu zuen. Pintore kalea, Iñigo de Loyola eta Geltoki kaleak egin eta azken lekukoa Uistin kalean Kutxabank ondoan izan zen. Hortik ibai aldera eta Blas de Lezo kaletik berriro Geltoki kalera Okendo plazan amaitzeko. Bertan lekukoa eraman zuten gazteak oholtzara igo eta Amalur eskolako trikiti eta pandero joleen doinuaz gozatzeko aukera izan zuten, baita Dabid Egizabalen eskutik dantzatzeko ere. /Argazkiak txintxarri.info-n



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da
gure lanaren arrazoa

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

Neure kabuz



Ane Labaka

Tipi tapa, tipi tapa...

1199. kilometroa burutuko du Korrikak ni lerro hauek idazten ari naizen bitartean. Ordu batzuk barru iritsiko da Gasteizera eta hemen dagoeneko usaindu liteke giroan, kanpuseko ikasle bazkari jendetsuan nahiz kale ertzetan kilometro kopurua adierazten duten paneletan.

Gaurkoan ez nator ezer berria esatera. Ez espero, beraz, nigandik hitz joko orijinalik edo sorpresarik.

Dakizuen bezala, aspaldi hasitako bidea da euskararena. Bide horretan izerdi tantak malko ere bihurtu zaizkio zenbaiti. Izan ere, askori ahaztu egiten zaie benetako Korrika lekukoa Baionara iritsi ondoren hasten dela.

Astelehenetik aurrera, fabriketan, ikastoletan, gau eskoletan, euskaltegietan, kalean, tabernan, udalteeetan, herriko plazan... Orduan ere euskara eman behar duogun elkarrizketari. Oraindik zalan-zalan jartzen duten horiei argi uzteko euskaraz dena egin daitekeela; jolastu, gozatu, eztabaidatu, maitatu, haserretu, adiskidetu, poesia idatzi, kantatu, eta Suarez-en esanei aurka eginez fisika kuantikoari buruz hitz egin ere bai, zergatik ez? Begiratu bestela Etxepareri, gaur egun mingainetan, belarrietan eta bihotzetan daramagun hizkuntza (eskribitu ezina zen hura) eskribitzea lortu zuen!

Aurreko astean, Aitorrek, AEK-ko ikasleak, bi esera zahar gehitu zituen bere koadernoan: "Gustoko tokian aldaparik ez" eta "Ezina ekinez egina". Niri ere aldapan gora goazela iruditzen zait askotan, baina bada garaia gugan sinisten hasteko eta ezinezkoak egiteko. Bagoaz korrika...

Zorion agurrak



Tamara eta Montse

Zorionak "bollito"! Ametsak bete eta pausoka pausoka beti aurrera.



Saioa

Oso ondo ospatu zure eguna eta segi hain polita! zure izebak



Naia

Zorionak Naiuki! Muxu pila gure etxeko printzesarentzat, aita-txo amatxo eta famili osoaren partetik.



Noelia

Ospakizun gozoa gaurkoa! Ondo ondo pasa eta muxu handia familia eta Gazte klubekoaren partetik.



Sergio eta Aimar

Zorionak maiteak! Bizkotxoak 6 eta 10 muxu guztien partetik.



Iugatz

Zorionak maitia, iada 4 urte bete dituzu. Segi horrela!!! Muxu pila aita, ama eta etxekoaren partetik.



Oier eta Yosune

Zorionak bikote, txokolatezko muxuak famili guztiaren partetik!!



Markel

Zorionak 'bitxito' eta hiru muxu potolo familia osoaren partetik!



Anartz

Zorionak gurasoen partetik!! Oso ondo pasa!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra alokatzen da Hipodromo Etorbidean. 648 614 769
- Garaje itxia alokairuan Geltoki kalean. Koka-leku ona. Harremanetarako, 615 720 367.

Salerosketak

- Opel Astra salgai 7 urte dauzka eta egoera onean dago. Interesa duenak deitu 637 733 447 edo 943 574 327

Lan-eskariak

- Pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko... edozertarako prest. Orduka lan egiteko prest ere. Harremaneta-

rako zenbakiak, 943 404 015/606 661 048.

- Emakumezko arduratsua lan egingo luke Orduka edo etxean bertan geratuta. 646 200 905

Bestelakoak

- Ingelesko klaseak ematen ditut maila eta adin guztietan. Harremanetarako zenbakiak, 693 601 222.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Lierni Parra Beobide, martxoaren 15ean.
- Josu Garcia Iglesias, martxoaren 11an.



Heriotzak

- Miguel Sarobe Abalabide, martxoaren 19an, 76 urte zituela.
- Maria Luisa Mugica Munoa, martxoaren 15ean, 93 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 22 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 23 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Igandea, 24 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Astelehena, 25 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astearte, 26 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteazkena, 27 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Osteguna, 28 -Astelehena, 1 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astearte, 2 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 3 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Osteguna, 4 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Ostirala, 5 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Larunbata, 6-Igandea, 7 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Astelehena, 8 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Astearte, 9 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteazkena, 10 Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea	943 361774
Osteguna, 11 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Aldabe, Perkaiztegi 8
Hernani, Tel.: 943 336 022

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



Lasarte-Oriako Udala

Laguntzailea



Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagire, Jon Altuna I.,
Maider Azumendi, Jon Altuna E.
txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Arantza Artola
publizitatea@ttakun.com
administrazioa@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Maitu Aruti,
Asier Odriozola, Jone M.
Hernandez, Oihana Salazar,
Pako Aizpitarte, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Armadoz

UDALA

Ikimiliki logoa da irabazlea

Batzarrean bozkatu da Argos deskalifikatu eta bigarren lana saritzea

Ez ohiko batzarra egin zen loagoren lehiaketako irabazlearen izena jakiteko. Prozesuan irregulartasunak izan dira eta irabazle gertatutako Argos deskalifikatzea erabaki zuten. Honako erabakia bozkatu zuten asteazkenean Ikimiliki irabazle izendatzeko.



Ez ohiko batzarra logo lehiaketako irabazlea hautatzeko

Hika mika piztu du alderdien artean Udalen logo berriak. Izan ere Argos lana ateratzen zen puntuaketa altuenarekin alderdi politikoak, elkarteak eta herritarren bozak kontutan izanda eta hau deskalifikatzea izan da alderdiek bozkatu zutena.

Jose Manuel Monge Argos lanaren egileak, bere lanarentzat boza eskatu zuen Facebooken. Prozesuan eta oinarrietan azaldu bezala, anonimotasuna ziurtatu behar zen eta honako baldintza ez zuela bete argudiatu dute udal alderdiek erabakia hartzeko. Horrela izanda puntuaketetan hurrengo izendatu dute EAJ eta Bilduren aldeko bozekin, irabazlea, Ikimiliki.

PSE-EE kontra

PSE-EEK kontrako botoa eman eta Plataformako bi kideek abs-

tentzioa erabaki zuten. Azken hauek azalduta, lehiaketa aurkeztutako logo guztiak ikusita, herriaren nortasuna hauetan ez zela islatzen ondorioztatu eta lehiaketa desierto uztea zen euren proposamena. "Hala ere prozesua garbia izan dela zalantzarik ez dugu eta onartzen dugu erabakitakoa".

Zaballosek azpimarratu zuten bere alderdiaren lehenengo proposamena lehiaketa irabazlerik gabe uztea izan zela. Hala ere, prozesuan arazoak izan direla argudiatuta ez zuten bat egin Argos lana deskalifikatzearekin.

Halakoak izan dira puntuaketa: alderdi politikoen artean %50-eko balioarekin 6,23 puntu Ikimiliki eta 4,41 Argos; elkartearen artean %30 balioarekin Argos 3,36 eta Ikimilikik 3,65 eta azkenik eta hemen

zegoen alde nagusia, herritarrek emandako bozketan %20, Argos 9,03 eta Ikimilikik 4,83 bigarren postuan kokatuz. "Nabarmen ikusten da non lortu duen Argos puntu gehien eta kasu horretan uler-tzen dugu eragina izan duela bere bozen eskaera horrek".

Azkenean irabazlearen izena ezagutzera eman zenbertan gutun azala irekita, horrela Ikimiliki lanaren egilea Bit&mina enpresa izan dela jakin zen.



Zuhaitzaren eguna.-

Herriko ikastetxeetako 130 haurrek parte hartu dute 2013ko zuhaitz landaketan. Guztiara asteazken eta ostegunean 170 arbola landatu dira Goiegi gainean. Asteazken 120 arbola landatu zituzten, lizarrak, haritzak eta pagoak, Eneko Urdepilleta lorazainaren laguntzarekin. Ostegunean beste 50 astigar, urki eta haritz landatu zituzten helduek.



MUSIKA TOPAKETA

Errezitaldi lirikoak komentuan

Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioko kantu ikasleek gaur 20:00etatik aurrera, errezitaldi lirikoak eskainiko dute Ama Brigitarren komentuko kaperan.

Danok Kide elkarteak antolatzen duen VIII. Musika Topaketen kontzertu honetan Maria Martin, Idoia Arizaleta, Sara Zozaia eta Nerea Azcona sopranoen, Ariel Cruz kontratenorearen, Alberto Saez Puente tenorearen eta Juan Laboreria baritonoaren ahotsak bakarka zein taldean entzuteko aukera paregabea izango da.

Haendel, Mozart edo Bach egile ezagunen doinuak entzutez gain, Guridi edo Antonio Mercero herritarren abestiez ere gozatu ahalko dute komentuko kaperara hurbiltzen dituen herritarrek.

GAZTE KLUBA

Postre lehiaketa Okendon gaur

GAZTE KLUBA

Gazte klubeko lagunek lehiaketa gozoa izango dute gaur arratsaldean, 17:30etik aurrera Okendo plazan, postre lehiaketa.

Iazko arrakasta ikusirik Gazte Klubeko arduradunek aurten ere lehiaketa egitea erabaki dute. Honela, 13 taldek postre gozo eta erakargarriak egiteko duten abilezia erakutsiko dute.

Lehiaketako antolatzaileek aipatu digutenez, epaimahiak postre gozoenari, itxura hobereana duenari eta mantala originalena duen taldeari emango diete sariak. Epai-lek lan zaila izango dute lanak probatu eta sariak emateko.

Eguraldi txarra eginez gero, lehiaketa Udaletxe berriko arkupeetan egingo dela jakitera eman dute antolatzaileek.

Familiantzat ikastaroak Udaberrian

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura eta gazteria sailek Udaberriko ikastaro egitarau zabaldua prestatu dute eta berrikuntza modura familiantzat ikastaroak aurkeztu dituzte.

Kultura saileko arduradunek azaldu digutenez, familia ikastaroek guraso eta haurren arteko harremana sendotzeko helburuarekin antolatu dira eta gai ezberdinak landuko dira, sukaldaritza, birziklapena, ipuinak edo lehen sorospenak, esate baterako.

Saio hauek hiru adin tarte ezberdinetan banatu dira batetik 0-6 urte bitarteko haurrekin egin daitezkeenak, bestetik 4 urtetik gorakoentzako saioak eta azkenik 6 urte baino gehiagokoei zuzendutakoak. Horietako saio bat, Sexualitatea familian izena duena gurasoei zuzendutakoa da.

Ikastaro hauek larunbatean izango dira Manuel Lekuona kultur-etxean eta

haur bakoitzarekin gurasoetara bat egon beharko duela jakitera eman dute antolatzaileek.

Beste ikastaroak

Bestalde, 14 urte baino gehiago duten herritarrentzat hainbat aukera daude gazteria eta kultura saileko ikastaroen artean. Baratza balkoian, stretching, serigrafia, free style dantza, gitarra, henna tatuajeak edo biziraupen ikastaroak dira Gaztelekuetan eta Manuel Lekuona eskainiko diren saioak.

Ikastaroetan izena eman nahi dutenek lasarteoriarrean orrialdean edo Gaztelekuera hurbildu behar dira apirilaren 5an baino lehen.

Familia ikastaroak doaine-koak dira, besteetan berriz erroldatuak 27,35 euro ordaindu behar dituzte eta erroldatuak ez daudenak berriz 48,16 euro.

i.URRUZOLA

ABOZTEGIA



- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea
(Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA



LABURRAK..

Enara Fernandez eskiaitzailea Espainiako txapeldun

Kirol egokituko Espainiako eski txapelketak jokatu dira egun hauetan Cerler-eko pistetan. Enara Fernandez herritarra bertan izan da lehian eta Iraitz Etxarri gidaren laguntzaz Slalom eta Slalom Gigante probetan garaipena lortu zuen.



FERNANDEZ FAMILIA

Sorpresa ederra eman zuten Enarak eta Iraitzek osatutako bikoteak astelehenean Slalom Gigante-ko finalean lehen denbora lortu zuenean eta asteartean ere ederki ibili ziren Slalom-eko finaleko bi jaitzieratan.

Enara eta Iraitz bi garaipen hauekin oso pozik daudela aipatu digu Mari Carmen Enararen amak.

Merituz lortutako garaipenak dira batetik Enarak eta Iraitzek elkarrekin egiten duten lehenengo urtea delako eta bestetik Enara ez delako bere mailan lehiatu. Enararen amak azaldu digunez, nahiz eta Enara infantilak izan, jubenil mailan lehiatu da eta 15 eta 18 urte arteko neska gazteak izan ditu arerio.

Jorge Revuelta Gipuzkoako txapeldun

LOKEko Jorge Revuelta, Mikel Lasa eta Talib Vergara judoka gazteak infantil mailako Gipuzkoako Txapelketan izan ziren lehian, igandean Hernanin eta emaitza honak lortu zituzten, urrezko domana bat eta bi brontzezako.

Revuelta gazteak lurraldeko titulua irabazi zuen eta "Euskadiko txapelketarako sailkatu da," azaldu digu Gorka Aristegi entrenatzaileak.

Bestalde, Mikel Lasa eta Talib Vergarak bakoitzak bere mailan hirugarren postua eskuratu zuten.

Neskentzako saskibaloia entrenamenduak

Ostadar SKT-k hurrengo denboraldian saskibaloian jokatu nahi duten neskentzako entrenamenduak antolatu ditu Aste Santurako. Jarunaldi berezi hauetan 1996 eta 1997 urteetan jaiotako neskek parte hartu ahalko dute.

Saioak apirilaren 2, 4 eta 5ean izango dira Lasarte-Oriako kiroldegian, arratsaldeko 15:00etatik 16:30etara.

IGERIKETA..

Lizaso Euskadiko txapeldun

Alebin eta benajminak bikain Kirol zehaztasun ligako saioan

Buruntzaldea IKT-ko igerilariak indartsu dabilta. Duela bi aste Naiara Lizasok Euskadiko txapelketa eskuratu zuen eta aurreko asteburuan taldeko txikiak lan ederra egin zuten herrian izandako KZL-ko jardunaldian.



Naiara Lizaso igerilari gaztea Euskal Herriko txapelketako proban. BURUNTZALDEA IKT

TXINTXARRI

Martxoaren 16 eta 17an, Santurtzin Euskal Herriko Infantilen Txapelketa ospatu zen eta emaitza bikainak lortu zituzten Buruntzalde IKTko gazteek. Orokorrean igerilariak marka pertsonalak hobetzea lortu zituzten.

Naiara Lizasok 100 m. libre probako urrezko domina eskuratu zuen eta egindako denborak, 1'02''55, Udarako Infantilen Espainiako Txapelketan aritzeko txartela eman zion.

Honetaz gain, 50 m. libre proban txapeldunorde izan zen eta 100 m. tximeletan eta 200 m. libreko erreleban

bere markak hobetzea ere lortu zuen Naiarak.

Bestetik, Iñigo Ibarburu txapeldunorde izan zen 100 m. libre, 200 m. libre eta 100 m. bizkar probetan eta horietako bietan, 200 m. libre eta 100 m. bizkar proban Espainiako Udarako Txapelketarako marka gutxieneok egin zituen.

Mikel Soto ere 100 m. bular proban EH-ko txapeldunorde izan zen. Honetan eta 200 m. bular eta 400 m. libre probetan bere marka hobetu zuen.

Ainara Garcia, Janire Berasarte eta Enara Arrutik ere haien markak hobetu zituzten.

Kirol Zehaztasun Liga

Bestalde, lehenengo larunbatean Lasarte-Oriako kiroldegiko igerilekuan Kirol Zehaztasuneko laugarren saioa izan zen.

Honetan Buruntzaldea IKT-ko benjamin eta alebinak aritu ziren lehian eta haien marka gehienak hobetu zituzten.

Aipagarriak dira 2003ko nesken artean, Leire Martin gipuzkoak osoko azkarrena izan zela 50 tximeleta proban eta lehen urteko alebinetan 200 libre proban, Lander Sorozabalen bigarren postua.

Honetaz gain, 4x50 estiloko erreleban neskek bigarren izan ziren sailkapen nagusian, mutilak berriz, seigarren.

Errazioak
Ogitartekoak
Plater konbinatuak
Entsaladak

Eguneko menuak

taberna
Arkupe
facebook.com/ArkupeTaberna

Tel.: 943 37 17 42
Largonea Kalea, 1
20160 Lasarte-Oria

Bideo Lagunak
TIEN 21
Etxekotresna elektrikoetan adituak

Eskaintza gehiago Facebook-ean, Jarrai gaitzazu!

Erakusketa aldaketarengatik likidazioa

Donostia etorbidea 2 - Lasarte-Oria | Tel: 943 37 31 34 | www.bideo lagunak.com

Jalgi

KAFE-ANTZOKIA



GELTOKI KALEA 4 BEHEA
LASARTE-ORIA • Tel.: 943 377024

Maita



ETELU



- B Gestoria**
- B Aholkularitza**
- B Inmobiliaria zerbitzuak**
- B Aseguruak**
- B Etxebizitzen administrazioa**

Aralar plaza 4 behea • Lasarte-Oria
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117



Besteak beste, txalapartariak eta Kukukako dantzariak hartu zuten parte aurkezpenean.



Lekukoa eramango duten taldeetako ordezkariak argazkia atera zuten amaieran.

Larunbatean 17:00etan helduko da korrika

► Ostiral arratsaldetik hainbat ekitaldi burutuko dira giroa berotzeko ► Kontzertua dago gauean Okendon

Larunbatean martxoaren 23an arratsaldeko 17:00etan iritsiko da Korrika Lasarte-Oriara, eta Muntteri Euskaltegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu azken egunotan. Aurreko ostiralean egin zen aurkezpena Manuel Lekuona kultur-etxean, atzo ostegunez burutu zen Korrika Txikia, gaur, bideo emanaldia, herriko bertsolarien txapelketa eta rock kontzertua egingo dira, hurrenez hurren kultur etxean, Jalgi tabernan eta Okendo plazan, eta amaitzeko, bihar, korrika iristearekin batera, egun osoko ospakizuna antolatu du euskaltegiak Udalaren laguntzarekin.

Jon ALTUNA IZA

gande goizean amaituko da 2013ko Korrika 18-a, Baionan eta bertara bidean, larunbatean arratsaldeko 17:00etan iritsiko da Lasarte-Oriara. Usurbil aldetik helduko da, eta, gutxi gorabehera, ordu bete herriko kaleetan egin eta gero Urnieta bidetik abiatuko da Urnieta, Hernani, Astigarraga eta Donostia aldera.

Dena den, larunbat goizean goizetik izango da giroa Lasarte-Oriara eta Okendo izango da ospakizunaren erdigunea.

Muntteri euskaltegiak antolatutako egitaraua goizeko 10:00etan hasiko da haur eta helduentzako jokoekin.

11:00etan, Rafafa magoak zenbait trikimailu egingo ditu Okendo enparantzan eta ordu

berean, bertatik abiatuko dira Kukuka antzerki eta dantza eskolako partaide batzuk. Kalean antzerkia egingo dute zenbait auzotan eta gero berriro Okendora itzuliko dira eguerdiko 13:00etan.

Bazkaria Okendon

Ordurako hasita egongo da, eguerdian, Alboka eta Xumela abesbatzen kantu-jira, kalez kale eta tabernaz taberna.

14:00etan hasita, Herri Bazkaria, eta bazkalostea, Amalurreko musikari, bertolari eta Dinbi Banda herriko batukada taldeak girotuko dute.

Arratsaldeko 17:00etan iritsiko da 18. Korrika Hipodromo moko zubira. Lehen kilometroa Muntteri euskaltegiako ordezkari egingo dute, eta beraien eramango dute lekukoa.

Ondoren herriko kaleetan lekukoa hartuko dute, besteak beste, Ttakunek eta herriko beste hainbat elkarteak, Kukuka antzerki eta dantza eskolak, pailazoeak, Udaleko ordezkariak, ikastetxeak, Landaberriko guraso elkarteak, LAB sindikatuak eta Bilduko Udal taldeak.

Urnieta bidetik aio

Herrikoen azken kilometroa Sorgin Jaiak batzordeko eta Ernai gazteen erakundeak ordezkariak egingo dute Urnieta bidean Ormazabal etxe inguruan. Szken ordezkari horiek Urnietakoei eman-goto diete lekukoa.

Korrika pasako da baina hor ez da amaituko festa. Larunbatean arratsaldeko 18:00etatik aurrera erromeria antolatu dute Okendo plazan.

Bestalde, Korrika igandean amaituko da Baionan eta herriar ugari joango da ospakizunaren amaieraz gozatzeraz autobusean.

Lasarte-Oriara arrastoa utzi du Korrikak. Osteguneko Korrika txikian hainbat neska-mutilek parte hartu zuen eta larunbaterako ere jendetza espero dute antolatzaileek.

Fernández

e h u n a k



Nahi edo behar duzun huraxe aurkituko duzu gurean!



Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

kima



masaje-lekua

**Goyo Martin
Xabier Carbayeda**

Kale Nagusia 44 • Tel.: 943 366197
LASARTE-ORIA



Hipodromo etorbidea 3
Lasarte-Oria
Tel.: 943 366176
labegoxo@euskalnet.net



Pastelak
Opilak
Pastak
Ogia
Bonboiak
...

Etorri gurekin

**kafea hartzera
gosaltzera**

.....





aldaz
hartz klinika - clinica dental

Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan
* Beste deskontuak eta sedazioari ezin zaie gehitu deskontu hori.

RPS: 124/10

Aldaz Hartz Klinikak tratamendu aurreratuena aplikatutako punta-puntako teknologia eskaintzen ditu.

- inplanteak eta hartz fijoak egun batean
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe
- "invisalign" ortodontzi ikusezina
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-PADI)
- pazientearen irribarra sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak
- interesik gabeko finantziakzioa 18 hilabete arte

Delitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com

ALDIZ
E

MEKANIKAKO TAILERRA

SAN JOSE-OLAIZ

EMAN
EUSKARA
ELKARRI



18. korrika

- Kamioien txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminiozko eta burdinazko soldadurak.



LOMBARDINI

IVECO

ZERBITZU OFIZIALA



DIMETAL S.A.

Ordutegia: 8:30 - 20:30

Zirkuitu ibilbidea 6 • 20160 LASARTE-ORIA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508



Balerdi Larategiak

LASARTE
Kale Nagusia, 36-38 • Tel. 943 33 42 82



Geltoki kalea, 19 • Tel. 943 37 65 85

Kale Nagusia, 50 • Tel. 943 36 36 11

HERNANI
Izpizua kalea • Tel. 943 33 42 82

URNIETA
Idiazabal kalea, 17 • Tel. 943 00 81 69

DONOSTIA
Bermingham, bajo n° 31 • Tel. 943 28 23 23


18. Korrika larunbatean 17.00etan Lasarte-Orian

EGITARAUUA
Ostirala 22

Bideo saioa, bertso txapelketa eta kontzertua
19:00etan: 17. Korrikaren eta 8. Euskararen Maratoiarekin bideoen emanaldia
22:00etan: Lasarte-Oriako Bertsolari Txapelketa, Jalgin.
22:30etan: Kontzertuak Okendo plazan:
Mendekatu Itxua, Ingo al deuz, Big Time Sound Sistem

Larunbata 23

Korrika iritsiko da eta egun osoko ospakizuna
10:00etan: Haur eta helduen jokoak, Okendon.
11:00etan: Ralafia magoa, Okendon
11:00etan: Kukuka taldearekin Kale anzerkia Okendotik abiatuta auzoz auzo.
12:00etan: Alboka eta Xumela abesbatzen kantu-jira, kalez kale.
13:00etan: Kale anzerkiaren bukaera, Okendon.
14:00etan: Herri Bazkaria Okendo enparantzan.
16:00etan: Amalur, Ane Labaka eta Asier Azpiroz bertso-lariak, Dinbi Banda, musikako...
17:00etan: 18. KORRIKA iritsiko da Hipodromoko zubira.
18:00etan: Erromeria, Okendo plazan.



Zubieta aldetik iritsiko da
18. Korrika Lasarte-Oriara, 16 lekuko aldekata egingo dira, gutxi gora behera kilometro erditik kilometro erdira eta Urnieta bidetik aterako da, Hernani eta Donostia aldera

0 2315.- Hipodromoko Zubieta Muntteri AEK
1 2316.- Blas de Lezo kalearen hasiera Kukuka
2 2317.- Tien 21 Pirritx, Porrotx eta Marimotots
3 2318.- Kolorin haurtzaindegiko enparantza. Ttakun
4 2319.- Euskotren, bihurgunearen irteera. Elkarteak Intza, Lasartearra, Xirimiri, Buruntz azpi, Arrieskalela, Udaberri.
5 2320.- Andatza plaza atzea. Zabaleta Auzo Elkarteak
6 2321.- Ilargi taberna. Lasarte-Oriako Udala
7 2322.- Zumaburuko elizaren atzea. Ikastetxeak

8 2323.- Txarteleko errotonda. TSST Autobusak
9 2324.- Orieta xiki gaina. Argia /Antza
10 2325.- Ozlarango zubi azpia. Landaberri Guraso Elkarteak
11 2326.- Dia pasata. Bilduko Udal Taldea
12 2327.- Urnietako bidea, zubieta. LAB sindikatua
13 2328.- Indiano berri. Ostadar S.K.T.
14 2329.- Arriklaga baserriko sarrera pasata. Erkeitz Dantza Taldea
15 2330.- Ormazabal eltxea pasata. Sorgin jaiek / Emai gazte taldea
16 2331.- Kostegi. Urnietaokok hartutako dute lekukoa

8 Korrikak Lasarte-Orian egingo duen ibilbidea, eta burutuko diren ekitaldi ezberdinak herriko Muntteri euskaltegiak antolatu ditu Lasarte-Oriako Udalaren dirulaguntzarekin



Kale Nagusia 39 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 372668
Faxa: 943 370737

Ika, ika, ika...
hemen dator
korrika!!!!

EGUERDITAN ERE IREKITA DAUKAGU!



Juan XXIII.a plaza
Lasarte-Oria





Euskara elkarri emateko ikasten

► Euskara ikasleen ahalegina goraiatu eta horretan ari direnak omentuko ditu urten Korrikak
► Pili Bodegas eta Alberto Alonsok euskalduntzearen erronka eta zailtasunen berrri eman digute

Jakina da 18. Korrikak euskalduntzen eta alfabetatzen ari diren pertsonak omentuko dituela. Aurrean zabaldu nahi duen mezua da euskara dela elkarbizitzarako gakoa, "elkarrekin bizitzeko, elkarri hitz egiteko, elkarri entzuteko eta elkar ulertzeko tresna". Beraz, helburu hori lortzeko, "euskara elkarri emateko", euskara ikasten ari diren ahalegina aitortu dute arduradunek, euskara Korrikak omenaldirik bereena eskainiko die 2013an euskara ikasle guztiak, "hauen ahaleginarekin euskarak bizi ahal izatea ahalbidetzen dela, beraz, elkarbizitzarako aukerak sortzen ari direlako".

Jon ALTONA IZA

Korrikaren 18. edizioak euskara ikasleak omentuko ditu, eta Munterri euskaltegiak aurretik ospatutako hilaren 15ean Manuel Lekuona kuzpean isladatu zen hori. Munterri euskaltegian bainbat mailerako 75 ikasle inguru ari dira euskara ikasten. Gu horietako birenkin mintzatu gara, Pili Bodegas eta Alberto Alonsorekin, ikasleen zailtasun eta nahiketa ikazteko. Oro har pozik hartu dute ikasleek euren ahaleginarekin aurrera. Alberto Alonsok erdi mailako ikasleekin hitz egin du. Pili Bodegas, lehen urratseko ikasleekin hitz egin du. "Kalean euskaldunon diru ikasleak, "beraien laguntzarekin aurrera goaz eta



Alberto Alonsok duela bi urte neke zion atea euskarari Munterri euskaltegian.

"Pena ematen diti, euskaldunak, elkarren artean euskararik ez erabiltzeko."
Joera handia dago gaztekeraz mintzatzeko"

Alberto Alonso aurrean gutxiago joan da euskaltegia eta horrela oraindik gogoratzen du: "Galduta nabil askotan. Lasaia hanuko dut pikkanaka. Ez daukat presarik".
Euskararen alde korrika Alberto Alonsok eskula ez du parte hartu. Korrika batean, "egun pasatzen ikasi genuen, baina ez dut moztu parte hartu

ruko guztiak lurrutzen nau. Kilometroak festara urtero jotzen naiz". Dena den bere izek, jaiak baino egunetako erabilera da gakoa. "Nire adinarekin zaila egiten zait euskaraz hitz egitea, baina saiatzen ari naiz, ez mintzatzeko pena ematen diti eta". Horregatik hasi zen euskara ikasten: "Gustatu eta ez hitz egiteak pena ematez gain, beharrezkoa dela ikusten dut. Gero eta teku gehiagoan erabiltzen da eta eskatzen dute, beraz, lana galdu nuenen, "denbor" neukanez, euskara ikaslerabaki nuen".
Orain dela bi urte hasi zen Alberto Alonso euskara ikasten eta bi arazoi nagusi zituen: "Zergatik? Duela urte batzuk liburu bat irakurri nuen Euskal Herriari buruz eta jakin-mina, interesa, piztu zitzaidan. Hori baietik, eta bestiek lana aukeratzeko orduan beharrezkoa bada zerbitzu zateko".
Giro ona AEKn
Alberto Alonsok eskula ez du parte hartu. Korrika batean, "egun pasatzen ikasi genuen, baina ez dut moztu parte hartu



Pili Bodegas korrikalariak pozik haruko du parte Korrikaren semearekin.

Alberto Alonso ere pozik jotzen da euskaltegia: "Ikasle eta irakasleak jatorrak dira, baina oso familiarra dirugu eta giro ona dago euskaltegian".
Lasarte-Oria euskararik duen egoerari buruz iritzia ezberdina dute bi ikasleek. Albertok nahiko ondo ikusten du Lasarte-Oria, "pena ematen diti dakitenak, euskaldunak direnek elkarren artean euskararik ez erabiltzea. Joera eta ahalegina handia dago gaztekeraz mintzatzeko".
Horiek ez du erazten euskaldun beriek euskararik erabiltzea. Alberto berri iritzi, "gainera hori gehitu behar diruz lona, gure solora eta eraztasun falta, aditzen ezazatzea eta abar".
Pili Bodegas-en ustez, "guro eta gehiago erabiltzeko" eta zaintzeko".

Elkarizteak osorik txinbarri.info webgunean

Etorri gure jaki goxoak probatzera
Ola kalea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 362788



AUKERA PAREGABEA
3 saloi Logela Haur-gela LIKIDAZIOAN
Garcia Goldaraz. 1 blokea Hermani 943 55 71 54

Herriko Bertsolari Txapelketa, gaur gauean Jalgi tabernan

► Guztiak, bederatzita bertsolarik hartuko dute parte
► Migel Angel Ortiz de Guzman lehen aldiz aituko da

Euskal Herri osoko 25 herritan egingo da Bertsolari Zirkuitua, horien artean Lasarte-Oria. Jalgi kale antzokian, gaur, ostirala, martxoaren 22an, 22:00etan bederatzita bertsolarik Herriko Bertsolarien Txapelketa jokatuko dute. Titakun-en Earrat Bertsoskolan antolatuko du Korrika eta Bertsoskolan elkartarekin batera.

Gai jartzaila Pablo Suberbiola izango da eta bertsolaria, Zigor Irujo, Andoni Otamendi, Imanol Lizardi, Unai Muñoz, Evaristo Pikabea eta Ane Labaka, lasarteoriarak. Asier Aspizoz eta Beñat Irujoan kanoariak, hurrenez hurren zubiak eta amarrak, baina hemengo bertsoskolan bertan ere, eta nabokadua, Migel Angel Ortiz de Guzman izango da. Nafarroako ikasleak lan egiten du eta lan irekharu da bertsoskolan.

Berak, kontatu digumez, 1992an Lasarte-Oriako bertsoskolan hasi zen, baina sei hilabetera Nafarroara joan zen lanean. "Hau 13 urtean ez nuen esar esan zatekusa, baina izan dit, baina ez nuen helduden alderik topatu, 2006



Migel Angel Ortiz. Santa eskain. Evaristo Pikabearen. Biak antoko diru jagen.

Berak, laz, kantatu zuten lehenengo aldiz jendaurrean, Nafarroako bardeon txapelketan, "haz sortu zen txapelketaria da. Nafarroako Txapelketa bi urteik behin egitea erabaki zen, eta urte osoa deus gabe uztea moztu gaitzen zuten esatu zuten galdako txapelketa: formatu txapelketa tristen ez den txapelketa".
"Lasarnetako desafio batean, batek agurtzen bakoitza Berak, jolakiari baiten paperarean jartu ginen, eta orduan diruñua ari Nafarroan" esan diot. Nafarroa lan izaten dugun, guk behar dugu baita, gero, biki hartu dute parte, aurrerago buntari dirugu beidatu gaitzago".

"Dintzira" bertsotan Astean behin elkartzen dira zappi-zortzi lagun pare bat txapelketa iristen ez den orduan bertsoskolan aritzeko. "Lasarnetako desafio batean, batek agurtzen bakoitza Berak, jolakiari baiten paperarean jartu ginen, eta orduan diruñua ari Nafarroan" esan diot. Nafarroa lan izaten dugun, guk behar dugu baita, gero, biki hartu dute parte, aurrerago buntari dirugu beidatu gaitzago".

ADURIZ DE LASARTE S.A.
Odoikia- Solomoa ontzuitua
Etxeko txarizoa
Txistarra
Solomoa baratuaitan
Tripakoiak- Saltxitxak
Basurde burua
Baserri patea
BERTAKO FABRIKAZIOA
Lodi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 362451



Etxeri galdetzerak

TXINBARRI TABERNA
Reziokak Pintxoak
Etorri gure jaki goxoak probatzera
Hale Nagusia 46 • Tel.: 943 370885

Eguneko menua Piztak Hantburgesak Pintxoak
Etorri probatzerak
Etxean egindako masak
Giro berria, jende berria, Lasarte-Oria herriko pizzeri berria
kale Nagusia 71
20160 Lasarte-Oria • Tel.: 943 245565

M. Berasategi Kafeak
Beri dago aukera haur on bar itartzeko
Nespresso kafe-makinekin bateragarriak diren kapsulak
INFUSIOAK
TE BREAFAST
TE TUBIA
TE BELZA
TE BERDEA
TE EARL-GREY
TE CEYLAN
TE SAPOAREKIN e.a...
KAFE ARABICA
PARACATI (Brazil)
TABACU (Cuba/Rico)
Beriko KOLONBIA
Hipopodromo etorbidea 1 • Tel.: 943 361316
20160 LASARTE-ORIA



EMAN EUSKARA ELKARRI

amarauN

18. korrika

Gu ere Korrikaren alde!

Ttakun txintxarri

MAITE

ESTETIKAKO ARETOA

Prezio berriak fotodepilazioan **ETORRI eta GALDETU**

Krisi garaian, guk ere esfortzua egin nahi izan dugu, gure prezioetan!

Foto depilazioa argi pultsatuarekin

- Era ezberdinetako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Uistin Kalea z/g • Tel.: 943 370845 Lasarte-Oria




Fisioterapia Zentroa Ibaiondo

Fisioterapia Masajeak
Errehabilitazioa Osteopatia

Ola Kalea, 12 - behea. ezk - LASARTE-ORIA
Tel. / Faxe: 943 370 306 - fisioibaiondo@gmail.com



ALBA

ARROPA DENDA

Udaberria iritsi da gurera!

Nagusia 65 behea • Lasarte-Oria • Tel.:943 574450





BEHERAPEN HANDIAK GAU-MAHAIRAKO LANPARENTAN!

- Material elektrikoa
- Argiak
- Etxetresna elektrikoak
- TB/HI-FI
- Instalazio elektrikoak

www.electricidadarregui.com

Indre Nagusia 37 • LASARTE-ORIA TEL: 743 301060 • TEL/FAX: 743 314341



SANCHO TABERNA



**Kaxuela,
pintxo eta
morunoetan
espezializatua**




**Ogitartekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Eguneko menua**

**HITZARTUTAKO
eta
TALDEENTZAKO
MENUAK**



**EMAN
EUSKARA
ELKARRI**

Oriamendi enparantza 1 behea · Lasarte-Oria · Tel.: 943 372075



ABEND



KAFE-ANTZOKIA

**EGUNEKO MENUA
DANTZA
BOKATAK
KONTZERTUAK**

Goizeko 5ak arte irekita!

**Pablo Mutiozabal 5 · Tel.: 943 372089
LASARTE-ORIA**

LUIS CAR

autobusak



- Espainiako eta nazioarteko garratze-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako mikrobusak.
- 55 plazako autokarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa:943366316 Mobila: 629461897 LASARTE-ORIA





ALCAR
VENTANAS

*Etorri gure denda berrira,
Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)*



Zuregandik hurbil

Tel: 943 37 78 68
www.ventanasalcar.com












www.facebook.com/VentanasAlcar



Jarrai gaitzazu Facebooken!
gure jarraitzaile artean,
laister hasiko gara
opariak banatzen.

Me gusta



Tel: 943 37 78 68
tienda@ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu hemen, www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA

Plaza Oriamendi, 2
20160 · Lasarte-Oria
Gipuzkoa · (Lehenko Doble J)

TAILERRA

Ibaiondo, 4 erdisotoa 5-A
20160 · Lasarte-Oria
Gipuzkoa

JOSE AIZPURUA UNANUE S.L.

eraikuntzak










620 800 186
www.joseaizpuruaunanue.com

PROYECTOS

FACHADAS AISLADAS

FACHADAS AISLADAS

- Igeltseritza orokorrean
- Fatxaden estaldurak
- Estalkien berriztatzeak
- Gremioen koordinazioa
- Barne erreformak



IZARRA

BITXITEGIA

www.izarrabitxitegia.com

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945

IPARJOY[®] A.L.E.

